AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

| ESP.KODEA | COD.EXP. **2021ORDE0002** |
|---|---|
| ESPEDIENTEA EXPEDIENTE | **ORDENANTZA ETA ARAUDIEN ONARPENA** |
| TITULARRA TITULAR | **AZKOITIKO UDALA** |
| TOKIA LUGAR | |

# GIZARTE LARRIALDIKO HARRERA ZERBITZUA ARAUTZEKO ORDENANTZA

## ZIOEN AZALPENA

Ordenantza honen xedea larrialdiko harrera-etxebizitzaren erabilera eta sarbidea arautzea da.

Baliabide honen sorrerak eta erregulazioak Udalak premiazko alojamenduaren arloan duen eskumena arautzen duten araudiei erantzuna ematen die.

Gizarte larrialdietarako etxebizitzaren xedea da erregelamendu honetako 2.artikuluan zehaztutako premia/larrialdi egoerei erantzutea, etxebizitza hau aldi baterako erabiltzeko aukera eskainita. Etxebizitza hau lagatzeak zerbitzu publiko baten eskaintza suposatzen du; eta horregatik herri Administrazioen zerbitzuen eskaintza arautzen duen araubidea bete behar du; beraz, aldi baterako harrerako etxebizitza erabiltzen duten pertsonak Azkoitiko Udalarekin izango duen harremana ez da alokairuari dagokion figura juridikoa izango. Etxebizitzaren lagatzea ez da mugagabea izango.

12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak 42.artikuluan ezartzen duenaren arabera, Udalaren eskumena izango da, bakoitzari dagokion udal barrutian, ondorengo funtzioak betetzea: Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoko oinarrizko arretarako gizarte zerbitzuak hornitzea.

Era berean, 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, 33.2.a) artikuluan udal eskumeneko zerbitzuak, prestazioak eta laguntza ekonomikoak garatzen ditu, eta aditzera ematen du, oinarrizko arretarako gizarte zerbitzuen artean, besteak beste, harrera-etxebizitza egongo da.

# ORDENANZA REGULADORA DEL SERVICIO DE ACOGIMIENTO DE URGENCIA

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La presente ordenanza tiene por objeto regular el uso y el acceso al piso de acogida de urgencia de carácter municipal.

La creación y regulación de este recurso viene a responder a las distintas normativas que regulan la competencia del Ayuntamiento en materia de alojamiento de urgencia.

El objetivo del piso de urgencia social es dar repuesta a situaciones de urgencia/emergencia definidas en el articulo 2 de la presente ordenanza mediante el acceso temporal al uso de la vivienda. La cesión de este piso tiene carácter de prestación de un servicio publico y debe atender, por lo tanto, a la normativa que regule la prestación de servicios de las Administraciones Publicas, es decir, la relación de la persona usuaria del piso de acogida temporal con el Ayuntamiento de Azkoitia que gestiona el servicio no constituirá figura jurídica de arrendamiento. En ningún caso la cesión del piso se realizara por tiempo indefinido.

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre de Servicios Sociales, establece, en su articulo 42 que será competencia de los Ayuntamientos en el ámbito de sus respectivos términos municipales, la realización de las siguientes funciones: La provisión de los servicios sociales de atención primaria del Catalogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

A su vez, el Decreto 185/2015 de 6 de octubre de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales desarrolla en su articulo 33.2 a) los servicios y prestaciones, o ayudas económicas de competencia municipal e indica que, dentro de los servicios sociales de atención primaria, entre otros estará el piso de acogida.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

Ordenantza honetan, beraz, gizarte-larrialdiko egoerei erantzuteko harrera-etxebizitza arautuko da. Etxebizitza honetan alojamendua eskaintzen zaie iraupen laburreko egonaldia behar duten pertsonei eta bizikidetza-unitateei, gizarte-larrialdiko edo emergentziazko egoera batek eragindako alojamendu-gabeziari aurre egin ahal izateko.

En esta Ordenanza se regulará el piso de acogida para la atención de situaciones de urgencia social en el que se ofrece alojamiento a personas y unidades de convivencia que requieren una estancia de corta duración para poder hacer frente a la carencia de alojamiento derivada de una situación de emergencia.

Arauak, urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen behar, eraginkortasun, proportzionalitate, segurtasun juridiko eta gardentasun printzipioetara egokitzen da.

La norma se adecuá a los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficiencia exigidos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Ordenantza honen beharrezkotasuna beraz, Azkoitiko Udaleko larrialdiko harrera-etxebizitza zerbitzuaren prozedura arauak zehaztean datza, ahalik eta kostu baxuen eta eraginkortasun handien duen eta zerbitzuaren errealitatera egokitzen den prozedura arin bat ezarriz. Araua bat dator proportzionaltasun printzipioarekin, funtzionamendu egokirako beharrezko erregulazioa dakarrelako.

Así, la Ordenanza es necesaria pues permite establecer los cauces procedimentales a través de los cuales ha de efectuarse la prestación del servicio de acogida de urgencia del Ayuntamiento de Azkoitia, y la eficacia queda garantizada a través del establecimiento de un procedimiento ágil que se ajusta a la realidad del servicio. La norma es acorde con el principio de proporcionalidad, al contener la regulación imprescindible su correcto funcionamiento.

Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, araudia arau-esparru egonkor eta koherente batean sartzen da, eta horren edukia bat dator Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogo eta 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroak gai horri buruz ezarritako erregulazioarekin.

Para garantizar el principio de seguridad jurídica, el Reglamento se integra en un marco normativo estable y coherente, resultando su contenido acorde con la regulación sobre la materia establecida en la Cartera y en el Catalogo de Prestaciones del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Horregatik guztiagatik, Ordenantza honen legezko oinarria Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5ekoa 12/2008 Legea dira.

Por todo ello, la presente Ordenanza tiene su fundamento legal en la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, y La Ley 12/2008, de 5 de diciembre de Servicios Sociales.

Era berean, arauan jasotako erregulazioak eraginkortasun-printzipioa gauzatzen laguntzen du, zerbitzuaren prestazioa eraginkorragoa bihurtuz; izan ere, aurreko ordenantza ez dator bat gaur egungo zerbitzua emateko moduarekin eta honen eguneratzea eta sinplifikatzea ezinbestekoa da.

Igualmente, la regulación contenida en la norma contribuye a hacer efectivo el principio de eficiencia realizando un uso mas eficaz del servicio, ya que, la ordenanza anterior no se corresponde al actual funcionamiento del servicio siendo para ello necesaria su actualización y simplificación.

Hau egiterakoan, 4/2005 otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko Legeak aipatutako printzipio orokorrak hartu dira kontuan: Tratu berdintasuna, aukera-berdintasuna, aniztasuna

En su elaboración se han tenido en cuenta los principios generales mencionados en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres: igualdad de trato, igualdad de

ZIRRIBORROA - BORRADOR

eta ezberdintasunaren errespetua, genero-ikuspegiaren integrazioa eta ekintza positiboa.

oportunidades, respeto a la diversidad y a la diferencia, integración de la perspectiva de género y Acción positiva.

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Xedea.*

Araudi honek egoera kritikoei erantzun nahi dien larrialdiko behin-behineko harrera zerbitzua arautzea du helburu.

*2. artikulua. Zerbitzuaren definizioa.*

*A)* Zerbitzu honek ostatu ematen die gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoera baten ondorioz ostaturik ez izateari aurre egin ahal izateko edo genero-indarkeriaren egoeratik biziberritu eta egoera hori gainditu ahal izateko iraupen laburreko egonaldia behar duten pertsonei eta bizikidetza-unitateei.

*B)* Laguntza-intentsitate txikiko zerbitzua da, eskaintzen ez duena harrera-etxean etengabe egon behar duen langilerik eta harrera-etxeari berariaz esleitutako langilerik. Halere, Azkoitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuek jarraipena egingo die pertsonei, etxebizitza beharra eraman duten egoerei eta, hala bada kasua, pertsona edo familia unitate bakoitzari dagokion arreta pertsonaleko planari.

*C)* Araudi honen ondorioetarako, honakoak joko dira A) atalean aipatutako egoerak:

- Etxeko indarkeria edota genero indarkeria ematen den kasuetan. Azken egoera horretan, beti ere norberaren edota etxebizitzan egon daitekeen pertsonen segurtasuna arriskuan jarri dezakeen egoerarik ez badago.

- Udalak harrera zerbitzua behar duen pertsonaren nahiz pertsonen bizitoki den eraikina hondoa jotzeko zorian dagoela jotzea.

- Famili unitatearen bizitokia den eraikina ez erabiltzeko moduan uzten duen hondamendia, sutea, uholdea nahiz antzeko ezbeharra.

DISPOSICIONES GENERALES

*Articulo 1. Objeto.*

La presente Ordenanza tiene por objeto regular el servicio de acogimiento de urgencia en pisos de acogida temporal.

*Articulo 2. Definición del servicio.*

A) Ofrece alojamiento a personas y unidades de convivencia que requieren una estancia de corta duración para poder hacer frente a la carencia de alojamiento derivada de una situación de emergencia o urgencia social, o disponer de un domicilio desde el que poder recuperarse y superar una situación de violencia doméstica.

B) Se trata de un servicio de baja intensidad asistencial que no cuenta con personal de atención permanente en el piso de acogida o personal específicamente asignado al mismo. Sin embargo, desde los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Azkoitia se hará un seguimiento a las personas usuarias, se atenderán las causas que han llevado a cabo la necesidad de vivienda y, en su caso, el plan de atención personal correspondiente a cada persona o unidad familiar.

C) A los efectos de este Reglamento, se considerarán como circunstancias a que se refiere el apartado A) las siguientes:

- En caso de violencia domestica y/o violencia de genero. En esa ultima circunstancia, siempre y cuando no existan situaciones que puedan poner en peligro la seguridad de sí mismas o de las personas que puedan estar en la vivienda.

- Declaración municipal de ruina inminente de la edificación que sirva de residencia a la persona o personas necesitadas de la acogida.

- Catástrofe, incendio, inundación y fenómenos similares que inhabiliten la edificación que sirva de residencia de la unidad familiar.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

- Bestelako larrialdi-egoerak, gizarte txostenaren bidez behar bezala justifikatzen direnak.

- Otras situaciones de emergencia debidamente justificadas mediante informe de los Servicios Sociales.

ONURADUNAK

3. *artikulua. Onuradun izateko betekizunak.*

a) Azkoitian, gutxienez, 6 hilabeteko errolda eta bizikidetza efektiboa duten pertsona edo bizikidetza unitateak.

Salbuespen gisa, onuradunak izan daitezke erroldaren eta bizikidetza efektiboaren betekizuna betetzen ez duten pertsonak edo bizikidetza unitateak, gizarte-premia larrikotzat definitutako gizarte txostenak egiaztatuta.

b) Beste udalerri batzuetako pertsonak ere hartu ahal izango dira, baldin eta eskatzailea erroldatuta dagoen udalerriko udalak edo erakunde eskudunak a) atalean zehaztutakoak egiaztatzen baditu, eta kasu guztietan gizarte-premia larrikotzat definitutako gizarte txostena aurkeztu beharko du udalak edo erakundeak. Dena dela, Azkoitian erroldaturikoek lehentasuna izango dute.

c) Adinez nagusia den eskatzailea, eta, hala badagokio, eskatzailearen ardurapean, tutoretzapean edo zaintzapean egonik normalean harekin bizi diren pertsonak, adin nagusikoak edo adingabeak izan.

*4. artikulua. Erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak.*

Oro har, larrialdiko harrera-etxebizitzan artatutako pertsonek Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan jasotako eskubideak eta betebeharrak izango ditu.

Halere, honakoak izango dira eskubide eta betebehar espezifikoak:

A) Eskubideak.

- Etxebizitza erabiltzeko eskubidea.

PERSONAS BENEFICIARIAS

*Articulo 3. Requisitos para la determinación de las personas beneficiarias.*

a) Personas o unidades convivenciales con empadronamiento y convivencia efectiva en Azkoitia de al menos 6 meses.

Excepcionalmente podrán ser beneficiarias aquellas personas o unidades convivenciales que no cumplan con el requisito de empadronamiento y convivencia efectiva, previa comprobación de informes sociales definidos como de necesidad social urgente.

b) Se podrán acoger a personas de otros municipios, siempre que el Ayuntamiento u Organismo competente del municipio en el que esté empadronada la persona solicitante acredite lo establecido en el apartado a) y en todo caso el Ayuntamiento o Entidad deberá presentar un informe social definido como de necesidad social urgente. No obstante, tendrán prioridad quienes cuenten con empadronamiento en Azkoitia.

c) La persona solicitante mayor de edad y, en su caso, aquellas mayores de edad o menores de edad que, estando a su cargo, bajo su tutela o cuidado, convivan habitualmente.

*Articulo 4. Derechos y Obligaciones de las personas usuarias del servicio.*

Con carácter general, las personas atendidas en el piso de acogida de urgencia tendrán los derechos y obligaciones recogidos en el Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas.

No obstante, serán derechos y deberes específicos:

A) Derechos

- Disfrutar del uso de la vivienda.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

- Norberaren izaera, giza duintasun eta intimitatearekiko errespetua. Ezingo da inor baztertu ez gizarte mailan, ez maila ekonomikoan, ezta maila moralean edo ideologikoan ere.

- Respetar su personalidad, dignidad humana e intimidad, sin que pueda sufrir discriminación por razones de tipo social, económico, moral o ideológico.

- Bakoitzak behar duen informazioa jasotzeko eskubidea, bai ahoz, bai idatziz.

- Recibir la información que precisa, verbal o escrita.

- Prozesuarekin zerikusia duen informazio guztiaren konfidentzialtasuna, ezinbestekoa egiten duten lege-eskakizunengatik izan ezik.

- Mantener a confidencialidad de toda la información relacionada con su proceso, salvo por exigencias legales que lo hagan imprescindible.

- Behar izanez gero, erabiltzaileek behar dituzten zerbitzuak eta prestazioak sozialak kudeatuko dituzte Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileek.

- En caso de necesitarlo, el personal del Servicio Social de Base, gestionará a las personas usuarias los servicios y prestaciones sociales que precisen.

- Erabiltzaileak bere etxebizitzako giltza edukitzeko eskubidea, indibidualizazio printzipioa bete ahal izateko. Halere, arduradunak ere giltzaren kopia bat izango du, beharrezkoa denean erabili ahal izateko.

- Tener la llave de su apartamento, con el objeto de cumplir el principio de individualización, sin perjuicio de que la persona responsable del servicio tenga copia de la llave para utilizarlo en caso necesario.

- Etxebizitzan erroldatzeko eskubidea izango dute harrera-etxebizitzan dauden pertsonek.

- Las personas que se encuentren en el piso de acogida tendrán derecho a empadronamiento en la vivienda.

B) Betebeharrak

B) Obligaciones

- Zerbitzua erabili behar izatera eraman duen egoera aldatzeko egoki jotako kudeaketa administratiboak, judizialak nahiz bestelakoak egitea. Erreferentziako gizarte langilearekin adostutako esku hartze plana betetzea.

- Realizar las gestiones administrativas, judiciales o de otra índole que se estimen oportunas para modificar la situación que ha motivado la utilización del servicio. Cumplimiento del plan de intervención acordado con la persona de referencia.

- Etxebizitza eta ekipamendu guztiak zaintzea.

- Cuidar de la vivienda y de su equipamiento.

- Instalazioak zaindu egin beharko dituzte, eta altzari, tresna eta ematen zaizkion beste gauza guztiak bereak balira bezala zaindu.

- Mantener el buen estado de las instalaciones, cuidando como propios los muebles, enseres y demás elementos que les sean facilitados.

- Zerbitzuan ez sartzea, baimenik izan gabe, altzaririk eta etxeko tresnarik. Norberaren erabilerarako direnak baino ezingo dira sartu.

- No introducir al servicio, sin autorización previa, ningún mobiliario ni enseres domésticos, permitiéndose unicamente los de uso personal.

- Animaliarik edo material antihigieniko edo arriskutsuak ez sartzea. Salbuespen gisa, txakur gidarien buruzko azaroaren 17/1997 Legean edo baliabidea mende duen erakundeak salbuespen gisa baimendutako beste kasu batzuetan izan ezik.

- No introducir en el servicio animales ni almacenar materiales antihigienicos y/o peligrosos. Con carácter excepcional, la Ley 17/1997, de 17 de noviembre, de Perros Guía o en otros casos autorizados excepcionalmente por el organismo dependiente del recurso sera permitido.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

- Osasunarentzat kaltegarriak diren legezko (alkohola, tabakoa) edo legez kanpokoa den inolako sustantziarik ez kontsumitzea.

- Gaixotasun mental eta/edo infekto-kutsakorren bat izanez gero, tratamenduari ez uko egitea.

- Etxebizitza utzi nahi edo utzi behar izanez gero, arduradunari jakinarazi beharko diote.

- Gizalege eta bizikidetza arauak errespetatu beharko dituzte, bai guztiontzako guneetan, baita etxe barruan ere.

- Arduradunari etxebizitzan sartzen utzi beharko diote, pertsona horrek izango baitu jarraipenaren eta funtzionamendu egokiaren ardura. Baita gizarte zerbitzuek baimendutako bestelako pertsonei ere.

- Hainbat bizikidetza unitateko pertsonek partekatzen badute zerbitzua, elkarrekin bizitzeko arauak bete beharko dira, garbiketa dela, higienea dela, ordutegiak direla. Norbere seme-alabez arduratuko da, bai eta bere gela eta objektu pertsonalak txukun eta garbi edukitzeaz ere. Etxeko lanei eta osagai komunei dagokionez, akordio batera iritsi beharko dute eta, gero, errespetatu eta bete.

-Errespetatzea etxebizitza erabiltzen duten pertsonen pentsamendua, iritzia, eta ideologia askatasuna.

- Azkoitiko Udalaren baimena ez duten pertsonei ez uztea zerbitzua baliatzen.

- Etxebizitzan irabazi xedea duen jarduerarik ez egitea.

- Onuradunen arteko gatazka edo desadostasunaren kasuan, Gizarte Zerbitzuetako pertsonalak, egoera aztertuko du eta onartu eta bete behar diren erabaki aproposenak hartuko ditu.

- Zerbitzuko giltzak ez kopiatzea, ez eta inori uztea ere. Egonaldia amaituta, giltzak Udaletxean utzi beharko dira.

- Zerbitzuan gertatzen diren kalte, konponketa edo hobekuntza premia guztiak Gizarte Zerbitzuei aditzera ematea. Zentzu horretan, erabat debekatuta

- No consumir sustancias nocivas para la salud, sean legales (alcohol, tabaco) o ilegales.

- No negarse al tratamiento en caso de enfermedad mental y/o infecto-contagiosa.

- Comunicar a la persona de referencia la necesidad o voluntad de abandonar la vivienda.

- Respetar las normas de civismo y convivencia, tanto en los espacios comunes como dentro de los apartamentos.

- Permitir el acceso al apartamento de la persona responsable que será la encargada del seguimiento y buen funcionamiento de los mismos, así como a otras personas autorizadas por los servicios sociales.

- En caso de que el servicio sea compartido por varias personas de distintas unidades de convivencia, se deberán cumplir las normas de vida colectiva en cuanto a la limpieza, higiene, horarios, etc. Cada cual será responsable de sus hijos e hijas si los hubiere y del orden y limpieza de su habitación y objetos personales. Respecto de los trabajos domésticos de los diferentes elementos comunes de uso, llegarán a un acuerdo que deberán aceptar y cumplir.

-Respetar el pensamiento, la opinión y la libertad ideológica de las personas que utilizan la vivienda.

- No permitir el uso del servicio a personas no autorizadas por el Ayuntamiento de Azkoitia.

- No desarrollar en el piso actividad lucrativa alguna.

- En caso de diferencias o conflictos entre las diferentes personas beneficiarias del piso, será el personal de los Servicios Sociales quien analice la situación tomando las decisiones oportunas.

- No hacer copia de las llaves del servicio ni prestárselas a otra persona. Al finalizar la estancia se deberán entregar las llaves en el Ayuntamiento el mismo día que se abandone el servicio.

- Comunicar a los Servicios Sociales todas las necesidades de deterioro, reparación o mejora que se produzcan en el servicio. En este sentido, queda

ZIRRIBORROA - BORRADOR

egongo da edozein konponketa egitea, aldez aurreko baimenik izan gabe. Matxura bat konpondu ahal izango da onuradunaren ekimenez, jaiegunetan edo udal zerbitzuen funtzionamendu-ordutegitik kanpo gertatutako premiazko egoeretan; kasu horretan, ahal bezain laster jakinaraziko zaie udal zerbitzuei, eta, edonola ere, hurrengo 72 orduak baino lehen.

- Udal ordenantza fiskaletan jasotako tasa ordaintzea.

- Epea amaitzen denean edo Udaleko Gizarte Zerbitzuek eskatzen dutenean etxebizitza uztea.

terminantemente prohibida cualquier reparación sin autorización previa. Se podrá solventar una avería por iniciativa de la persona beneficiaria, en caso de urgencia sobrevenida en días festivos o fuera del horario de funcionamiento de los servicios municipales, en cuyo caso se comunicará lo antes posible a los servicios municipales y, en todo caso, antes de las 72 horas siguientes.

- Abonar la tasa prevista en las ordenanzas fiscales municipales.

- Abandonar el piso cuando concluya el plazo o cuando así lo decidan los Servicios Sociales.

PROZEDURA

*5. artikulua. Eskaera.*

a) Sartzeko hasierako eskaera Udaleko gizarte zerbitzuen bidez egingo da, eta beraiek berehala tramitatuko dute, egoeraren larritasunak hala eskatzen duelako. Normalizatutako eskaera-orriaren bidez egingo da eskaera.

Eskaerarekin batera jakinaraziko zaie eskatzaileei Azkoitiko Udalak egiaztatu egingo dituela datu-bitartekaritzako plataformako zerbitzuetatik eta beste administrazio batzuetatik ordenantza honetan ezarritako ondorengo baldintzak.

Eskatzaileek egiaztapen horren aurka egiteko aukera izango dute; kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

**Datu-bitartekaritzako plataformaren** bidez eskatuko diren zerbitzuak:

.1Azkoitiko Udala:
-Banakako errolda historikoaren datuen kontsulta.
-Etxeko erroldako datuen kontsulta.
-Udalak harrera zerbitzua behar duen pertsonaren nahiz pertsonen bizitoki den eraikina berehalako aurri egoeran dagoela egiaztatzen duen txostena. -Famili unitatearen bizitokia den eraikina ez erabiltzeko moduan uzten duen hondamendia, sutea, uholdea nahiz antzeko ezbeharra egiaztatzen duen txostena.

2. Poliziaren zuzendaritza nagusia:
-Eskatzailearen eta bere bizikidetza unitateko pertsona bakoitzaren nortasun-datuen kontsulta eta

PROCEDIMIENTO DE ACCESO

*Articulo 5. Solicitud.*

a) La solicitud deberá ser dirigida al departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento y serán ellos quienes tramiten esa solicitud con celeridad dada la urgencia de la situación. La solicitud se hará mediante impreso normalizado.

Se informará a las personas solicitantes que el Ayuntamiento de Azkoitia va a verificar los siguientes requisitos establecidos en esta ordenanza, desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones.

Los solicitantes tendrán la opción de oponerse a esa verificación, en cuyo caso deberán presentar la documentación pertinente.

Servicios que se solicitarán mediante la **plataforma de intermediación de datos**:

1. Ayuntamiento de Azkoitia:
-Consulta de datos individuales del padrón histórico.
-Consulta de datos del padrón domiciliario.
-Declaración municipal de ruina inminente de la edificación que sirva de residencia a la persona o personas necesitadas de la acogida.
-Informe que acredite la catástrofe, incendio, inundación y fenómenos similares que inhabiliten la edificación que sirva de residencia de la unidad familiar.

2. Dirección General de la Policía:
-Consulta y verificación de datos de identidad, de cada una de las personas demandantes de la ayuda.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

egiaztapena.

3. Gipuzkoako Foru Aldundia eta foru-ogasunak:

3. Diputación Foral de Gipuzkoa y Haciendas forales:

-Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren kontsulta.
-Zergapekoak ez diren prestazioen kontsulta.

-Consulta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.
-Consulta de prestaciones no contributivas.

4. Eusko Jaurlaritza:
-Lanbide: Oinarrizko Errenta (OE) eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren (EPO) kontsulta.
- Izatezko bikoteen erregistroa**.**

4. Gobierno vasco:
-Lanbide: Consulta de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) y Prestación Complementaria de Vivienda (PCV).
- Registro parejas de hecho.

5. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala:
-Pentsioak eta bestelako prestazioak.

5. Instituto Nacional de la Seguridad Social:
-Pensiones y otras prestaciones.

6. Erregistro Zibila:
-Bizi-agiria eta egoera-agiria**.**
-Adin txikikorik balego, Familia Liburua.

6. Registro Civil:
-Fe de Vida y Estado Civil.
-En el caso de existir menores de edad, Libro de Familia.

b) Prozesuaren edozein unetan pertsona interesdunak atzera bota dezake bere eskaera. Kasu horretan idatziz adierazi beharko du. Atzera egiten badu eskaera artxibatu egingo da.

b) En cualquier momento del proceso, la persona interesada podrá desistir de su solicitud, en cuyo caso deberá hacerlo por escrito. Este hecho conllevará el archivo del expediente.

c) Eskaeraren tramitazioa eta balorazioa Gizarte Zerbitzuetako teknikariek egingo dute, eta **txosten batean** honakoak jasoko dituzte:

c) La tramitación y valoración de la solicitud sera realizada por el técnico de Servicios Sociales que elaborará un **informe preceptivo** que determinará:

- Bizitokian sartuko den pertsonaren edo pertsonen identifikazio-datuak.

- Datos de identificación de la persona o personas a acoger.

- Eskatzailearekin batera bizi ohi diren gainerako pertsonen identifikazio-datuak.

- Datos de identificación del resto de las personas que conviven habitualmente con quien presenta la solicitud.

- Harrera-etxebizitza eskatzera behartzen duten inguruabarrak, araudi honen 2. artikuluan zehazten direnak.

- Circunstancias que obligan a solicitar el piso de acogida, especificadas en el artículo 2 de este Reglamento.

- Bizikidetza-unitatearen egoera ekonomikoa.

- Situación económica de las personas acogidas.

- Bizitokia ematearen egokitasunari buruzko balorazioa. Balorazioa aldekoa bada, egonaldiaren iraupenari buruzko proposamena.

- Valoración sobre la conveniencia de conceder el acogimiento. Si la valoración es positiva, propuesta sobre la duración de la estancia.

- Epe horretan egin beharreko esku-hartze profesionala.

- Determinación de la intervención profesional que se hará durante la estancia.

- Bizitokia hartzen duenak beteko dituen konpromisoak.

- Compromisos de la persona usuaria.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

- Udalak intereseko jotzen duen beste edozein informazio.

d) Txosten hori eta bertan jasotakoa egiaztatzeko beharrezko dokumentu guztiak espedientearen osagai izango dira. Dagokion azterketa egin ondoren, ebazpen proposamena egingo zaio organo eskudunari.

e) Azkenik, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du, aldi baterako larrialdiko harrera zerbitzuan sartzeko eskabidea onartuz ala baztertuz.

f) Zerbitzua ematea erabakitzen bada, ebazpenean egonaldiaren iraupena agertuko da.

*6. artikulua. Harrera-pisura sarbidea izateko lehentasun hurrenkera.*

- Erabilgarritasunaren arabera eta lehentasun-hurrenkera aplikatuta, harrera-etxebizitza horretarako sarbidea irizpide hauen araberakoa izango da:

* Harreran artutakoen artean adingabeak egotea.
* Genero indarkeria jasaten ari den biktima izatea.
* Etxe bizitza-beharra hondamendiak, aurri-deklarazioak.
* Bizitokia izateko beharra, familia-gatazka larrien ondorioz.

*7. artikulua. Iraupena eta luzapena*

Iraupena finkatzeko kontuan hartuko dira, batetik, kasuaren ezaugarriak, eta bestetik, zein aukera egon daitezkeen zerbitzua eman beharra eragin duen egoera konpontzeko. Oro har iraupena sei hilabetekoa izango da ebazpena ematen denetik.

Oro har, 6 hilabeteko iraupena luzatu ahal izango da, organo eskudunaren ebazpen bidez. Ebazpen horretan luzapenaren iraupena finkatuko da, baldin eta beharrizana egiaztatu ondoren, Gizarte Zerbitzuek aldeko txostena ematen badu. Nolanahi ere, larrialdiko harrera-etxebizitzan egiten den egonaldiaren gehienezko iraupena ezin izango da 12 hilabetetik gorakoa izan.

*8. artikulua. Larrialdiko jardunbidea.*

a) Beharra muturrekoa edo larria denean, Gizarte Zerbitzuak eskatzailea zerbitzuan berehala sartzea

- Cualquier información que el Ayuntamiento considere de interés.

d) Dicho informe y toda la documentación necesaria para acreditar las circunstancias que en el se señalen, formarán parte del expediente. Una vez realizado el estudio correspondiente, la propuesta de resolución será elevada al órgano competente.

e) Finalmente, el órgano competente resolverá la solicitud de un modo razonado aceptándola o denegándola.

f) En caso de valoración positiva, la resolución precisará el tiempo de duración de la estancia.

*Articulo 6. Criterios de preferencia en el acceso al piso de acogida.*

- En función de su disponibilidad y por orden de preferencia, el acceso a este piso de acogida se regirá por los siguientes criterios:

* Presencia de menores entre las personas atendidas.
* Ser víctima de violencia de género.
* Necesidad de vivienda derivada de catástrofe, declaración de ruina.
* Necesidad de residencia por conflictos familiares graves.

*Articulo 7. Duración y prorroga.*

Para determinar el tiempo de estancia se tomarán en cuenta tanto las características del caso como las posibilidades de dar solución a la situación que ha creado la necesidad del servicio. El tiempo de estancia será de seis meses desde la resolución.

Con carácter general se podrá prorrogar la duración de 6 meses mediante resolución del órgano competente. En dicha resolución se fijará la duración de la prórroga, previa comprobación de la necesidad, previo informe favorable de los Servicios Sociales. En todo caso, la duración máxima de la estancia en el piso de municipal no podrá exceder de 12 meses.

*Articulo 8. Procedimiento de urgencia.*

a) Para atender los casos de extrema y urgente necesidad, el Departamento de Servicios Sociales del

ZIRRIBORROA - BORRADOR

proposatu ahal izango du, eskabidea behar bezala bideratu ez bada ere. Hori egin bezain laster, lehen azaldutako ohiko jardunbidea abian jarriko da, behin betiko ebazpena emate aldera. Zerbitzuan sartu eta hamabost egun baliodun iragan baino lehen eman beharko da ebazpena.

Ayuntamiento podrá proponer el inmediato ingreso en el piso de acogimiento, una vez suscrito el Documento correspondiente aunque la solicitud no esté debidamente tramitada. Inmediatamente después se dará inicio al procedimiento ordinario establecido anteriormente para su resolución definitiva, la cual deberá dictarse en el plazo de 15 días hábiles a partir de la entrada en el servicio.

b) Larrialdiko jardunbideaz sartu ostean, onuradunak uko egiten badio espedientea hasten edo bideratzen laguntzeari, edo, bideratzen ari dela, ezezko ebazpena dela egiaztatzen bada, zerbitzua utzi beharko duela jakinarazi beharko zaio, horretarako 10 egun natural emanik. Epea jakinarazpena jasotzen den unetik hasiko da.

b) En el caso de que, tras el ingreso por procedimiento de urgencia, la persona beneficiaria se negara a colaborar en el inicio o trámite del expediente o que, durante este, se comprobará que la resolución debe ser negativa, se le comunicará la obligación de abandonar el piso en un plazo no superior a 10 días naturales a contar desde la recepción de la notificación.

## ZERBITZUA IRAUNGITZEA

## EXTINCIÓN DEL ACOGIMIENTO

*9. artikulua. Zerbitzua iraungitzea.*

*Articulo 9. Extinción del acogimiento.*

Beharrezko espedientea izapidetu ondoren, eta Gizarte Zerbitzuen proposamenari jarraituz, zerbitzua aurreikusitako eguna baino lehenago iraungitzeko erabakia hartu ahal izango du organo eskudunak emandako ebazpen bidez, interesdunari entzunaldia egiteko aukera eman ondoren.

Instruido el oportuno expediente, y a propuesta de los Servicios Sociales, el órgano competente podrá acordar la extinción del servicio antes de la fecha prevista, mediante resolución, previa audiencia a la persona interesada.

Ebazpen hori onuradunari jakinaraziko zaio:

Dicha resolución será notificada a la persona beneficiaria.

a) Zerbitzua iraungi egingo da ezarritako aldia amaitzen denean, eta arrazoi hauengatik ere bai:

- Erabiltzaileak uko egitea.
- Heriotza.
- Zerbitzua ematea eragin zuen beharra desagertzea.
- Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak direla-eta zerbait ezkutatzea edo datu faltsuak ematea.
- Zerbitzuan sartzeko eskatutako betekizunetakoren bat galtzea.
- Beste erabiltzaileei edo langileei fisiko nahiz psikologikoki erasotzea.

a) El servicio se extinguirá por la finalización del periodo establecido y por las siguientes causas:

- Renuncia de la persona usuaria.
- Fallecimiento.
- Desaparición de la causa de necesidad que generó la prestación del servicio.
- Ocultamiento o falsedad en los datos que hayan sido tenidos en cuenta para la concesión del servicio.
- Pérdida de alguno de los requisitos exigidos para acceder al servicio.
- Por agresión física o psicológica a otras personas usuarias y/o trabajadoras del mismo.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

- Arrazoirik gabe pisuan ez bertaratzea.

- Gizarte zerbitzuetako langileen edo horiek baimendutako beste pertsona batzuei sartzen ez uztea.

- 4. artikuluko B atalean aipatutako betebeharrak ez betetzea

- Gizarte Zerbitzuek arrazoitzea oso larritzat jotzen duten jokabideak izan dituztela artatuko pertsonek.

b) Zerbitzua iraungitzat jota, erabiltzaileak ebazpenean adierazitako epean utzi beharko du zerbitzua.

c) Zerbitzua iraungita jo eta hilabeteko epea pasa ondoren harrera-etxean bizikidetza unitateko kideren bat edo guztiak erroldatuta jarraituko balute, Udalak ofiziozko baja izapidetzeari ekingo dio.

*10. artikulua. Kaleratze administratiboa.*

Arautegi honetan adierazitako arrazoiengatik edo emandako epea bukatu izanagatik, etxebizitza utzi behar bada, baina bertan daudenek utzi nahi ez badute, kaleratze administratibo bidez behartuko dira, eta hori egiteko Toki-erakundeen Ondasunei buruzko Erreglamenduaren 120. artikuluak eta hurrengoak, edo hura ordezkatuko duen araudiak xedatutako prozedurak jarraituko dira.

ARAUBIDE EKONOMIKOA

*11. artikulua. Tasa.*

Zerbitzu honen erabiltzaileek dagokion urtero onartutako ordenantza fiskaletan ezarritako tasa ordaindu beharko dute.

*12. artikulua. Zerbitzuaren erabilerak eragindako gastuak.*

Udalaren kontura izango dira komunitate gastuak, argindarra, gasa, ura, higiezina eduki edo erabiltzearekin lotutako edonolako tasa edo zergak, zaborren bilketako tasa eta mantenuak eragindako gastuak barne, non eta gastu horiek apartamentuan hartuta dauden pertsonek eragindakoak ez badira.

- No personarse en el piso sin ninguna razón.

- No permitir el acceso a los/as trabajadores/as de los Servicios Sociales o a personas autorizadas por ellos.

-No cumplir con las obligaciones mencionadas en el punto B del articulo 4.

- Acreditar que las personas atendidas han llevado a cabo conductas consideradas muy graves por los servicios sociales.

b) Declarada la extinción, la persona usuaria deberá abandonar el servicio en el plazo indicado en la resolución.

c) Si transcurrido el plazo de un mes desde la finalización del servicio, alguna persona integrante de la unidad convivencial permaneciera empadronada en el piso de acogida, el Ayuntamiento procederá a tramitar la baja de oficio.

*Articulo 10. Desahucio administrativo.*

Las personas usuarias del servicio deberán abandonar el piso de acogimiento por alguna de las razones citadas en el anterior articulo o por finalización del plazo, pero si estas se negasen a hacerlo se procederá al desahucio administrativo, según los procedimientos establecidos en el articulo 120 y siguientes del Reglamento sobre Bienes de las Entidades Locales.

RÉGIMEN ECONÓMICO

*Articulo 11. Tasa.*

Quienes hagan uso de estos servicios deberán abonar la tasa que anualmente se fije en la correspondiente Ordenanza Fiscal.

*Articulo 12. Costos derivados del uso del servicio.*

Será el Ayuntamiento quien se hará cargo de los gastos de comunidad, luz, gas, agua y demás tasas o impuestos, incluyendo la tasa de recogida de basuras y los gastos de mantenimiento, cuando estos no sean provocados por las personas usuarias.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 2009ko uztailaren 17an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (133. zk.) argitaratutako Gizarte Larrialdiko etxebizitzaren araudia, bai eta Ordenantza honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak ere.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Reglamento de Vivienda de Emergencia Social publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa nº 133, de 17 de julio de 2009. nº), así como cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en esta Ordenanza.

AZKEN XEDAPENA

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALean behin betiko testua argitaratu eta 15 egunera hartuko du indarra, eta indarrean jarraituko du harik eta Udalak osoko bilkuran onartu beharko duen aldaketa edo indargabetze espresua egin arte.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente ordenanza entrara en vigor a los 15 días de la publicación del texto definitivo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación expresa que deberá acordarse por el Pleno del Ayuntamiento.

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ZIRRIBORROA - BORRADOR**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710***